



Manifestua: Oinarrizko errenta bat egungo krisi ekonomikoaren garaian

Krisi ekonomikoaren ondorioak azken hilabeteotan ustez baino sakonagoak izaten ari dira. Gaur egungo krisiaren aurrekari bakarra 1929.ko urtekoan aurkitu daitekeenaren iritzia zeharo zabaldua dago informazio apur bat dutenen artean. Orain dela urte bat baino gehixeago, aldiz, oraindik ere asko ziren egoera ekonomiko txar batean geundela pentsatzen zutenek, baina iraupen laburrekoa. Ikuspegi honetatik, joan den mendeko bigarren zatian eman diren krisien artean, beste bat baino gehiago ez zen gaurkoa. Datu guztien arabera, ordea, badirudi oker zeudela.

Krisi ekonomikoaren ondorio sozialak larriak izaten ari dira oso. Nahiz eta 2009.ko erdirantz ezinezkoa den krisiaren hasieran edo erdibidean garen esatea – amaieran ziur ezetz-, ondorio negargarriak ekartzen ari ditu jadanik, bereziki gizartearen sektore horietan non lanpostuak galtzen ari diren. Langabezia tasak gora egiten du urte askotan zehar ezezagunak izan diren abiadura eta neurri batean. Aurreikuspen guztiak motz gelditzen dira benetako datuak ezagutzerakoan. Ez zegoen inongo aurreikuspenik 2009ko lehen hiruhilekoan langabezia tasak %17,3ra iritsiko zenik esaten zuenik, orain dakigunez. Zenbait ikerketen arabera baliteke tasa hori %30era igotzea 2010 urte-bukaerarako. Edozein moduan, 2009 urtearen erdialdean kokatuak, Espainiako erresuman ofiziala da dagoeneko 4 miloi langile baino gehiago geratu direla langabezian. Baina egoera are eta larriagoa da kontuan hartzen badugu errekupeazio ekonomikoak, gertatzen denean, ezin izango duela langabezi tasa hauek denbora labur batean absorbitu. Hoberenera jota, enplegu-suntsiketaren momentu gorenean eskuratu edota gaudituko diren 5 miloi langabetuak berriro ere lan merkatuan sartzeko etengabeko eta urte askotako hazkunde ekonomikoa beharko da.

Espainiako estatuko pobrezia-datuak berdintsu jarraitu dute azken hamarkada hauetan. Krisiak pobrezia-igoera azkarra erakarri du. Beharrezkoak izan dira azken

bosturteotan hazkunde ekonomiko tasa nabarmengarriak pobrezia-aren portzentaia %20 baten inguruan mantentzeko, baina egungo egoera pobrezia-muga azpitik bizi direnen zenbatekoa igoko du.

Krisiaren eraginak agerian utzi du babes sozialeko sistema publiko markets, zatitu eta kontrajarri baten ahuleziak. Gobernuak gainera presazko hainbat neurri hartu behar izan ditu krisiaren aurrean, gure babes sozialeko sistemaren bidegabetasuna eta kontraesanak larriagotuz.

Gaurko egoeraren aurrean, oinarrizko errentaren proposamena, herritar eta egoitza duten pertsona guztientzako eta baldintzarik gabeko diru esleipena, alegia, ongizate handia ekarri lekizkieke krisia gehien jasaten ari diren biztanleriaren sektoreei. Nahiz eta begien bistakoa den oinarrizko errentak, ondorio nabariak eraginda ere, ez duela bera bakarrik krisiarekin bukatuko, ez dugu zalantza izpirik ere honen ondorio latzenak sektore hauekiko arindu ditzakeela. Eta esan dezagun ere oinarrizko errenta krisi egoera batean defendatzeak ez duela esan nahi oparoaldi ekonomikoetarako ere neurri egokia ez denik pentsatzen dugunik. Azaldu nahi duguna honako hau besterik ez da: oinarrizko errentaren zenbait ezaugarri zeintzuk egoera ekonomiko egonkor batean ondorio onuragarriak izan baititzakete, are eta indar handiagoa hartzen dute gaur bezalako krisi egoera batean. Zergatik?

Oinarrizko errenta bat edukitzeak, lanpostuaren galeraren kasuan, etorkizuna modu lasaiago batean behatzera lagunduko luke. Nahiz eta hau oinarrizko errentaren ezaugarri bat izan, edozein egoera ekonomikoa dela, krisi egoera batean, non langabezia bizkor eta etengabeko erritmo batean hazten ari baiten, oinarrizko errentaren aipatutako ezaugarri horrek garrantzi sozial handiagoa hartzen du. Oinarrizko errenta bat izateak, langabeziaren tamaina geroz eta handiagoa denean eta, hortaz, birlaneratze edota lanpostua aurkitzeko hitz-emateak gezur errukitsuak ematen dutenean, bermatuko luke, era estu batean izanda ere, etorkizun hurbilena.

Pobrezia ez da existitzeko baliabide materialen eza soilik. Pobrezia besteen gutizia eta erabakimenarekiko mendekotasuna bezala itzultzen da ere, auto-estimua haustea, pairatzen duenaren isolamendu eta baztertze soziala bezala. Pobrezia-muga bezalako oinarrizko errenta bat pobrezia eta bere ondorioekin bukatzeko modu ezin zuzenagoa da. Egoera ekonomiko latzaren aurrean, non, esan bezala, pobrezia-aren ehunekoak handitzen joango diren, posible bihurtuz lau herritarretik bat txiro izatea, oinarrizko errenta paper garrantzitsua joka lezake eustarri moduan pobrezia-uholde honen aurrean.

Halaber, oinarrizko errenta lanpostua bilatzerako pizgarri boteretsua izan daiteke aurretik galdu duten pertsona guztientzat, kontutan hartzen badugu orain indarrean dauden laguntza baldintzatuekin alderatuta, oinarrizko errenta ez baita galtzen soldata bat jasotzerakoan. Oinarrizko errentak “langabeziaren tranpa” deritzona desagerrarazi, eta langileek enpleguaren bilakuntza modu eraginkorrago batean eta presioengatik aske egitea erraztuko luke, zeren eta presio hauek eskaski kualifikatua, produktibitate baxuko eta gaizki ordainduta dauden lanpostuetan izaten dute euren oihartzuna. Horrez gain, oinarrizko errenta batek denbora baterako eta borondatez hautaturiko enpleguen hazkundeari irekiko zizkion ateak.

Oinarrizko errenta kobratzeak arriskuaren murrizketa bat ekarriko luke berarekin auto-enplegu zenbait aktibitate martxan jartzeko momentuan. *Grosso modo*, bi ekintzaile mota aurki daitezke: sosten –familiarra, gehienetan- bat dutenek, zein aukera ematen baitie enpresa- proiektu bat antolatzeko aintzat hartzekoa den ziurtasunarekin; eta auto-enplegua beste irtenbide laborala ez dutenek. Bigarren kasuan, arriskatzen dena ez da inbertsioa bakarrik, baizik eta norbere bizibideak galtzea ere bai, eta hau da bigarren kasu honetan inbertsio erabakiak patuaren eskuetan gelditzen direnaren arrazoiak. Baina arriskua ez da hemen bukatzen: kasu askotan, gutxieneko hasierako kapital baten faltan ekintzaile potentzialek atzera egiten dute. Oinarrizko errentak, aldiz, bigarren motatako ekintzaileei euren enpresa-proiekturako diru-sarrerak bermatuko lizkieke, eta, aldi berean, proiektuaren harrera onarekiko mendekotasuna murriztu bizirauteko. Atzeraldi ekonomikoaren testuinguruan, oinarrizko errenta, auto-enplegurako pizgarri bat izateaz gain, berme handiago bat izango litzateke honelako inizatibean porrotaren aurrean, baita beste inizatiba bat hasteko aukera eman ere.

Krisi ekonomikoaren testuinguruan, soldata eta lanpostuei egiten diren erasoak ohikoak dira: Nazioarteko Diru Funtsak, Espainiako Bankuak, Bilbao Vizcaya Argentaria Bankuak (BBVA) eta CEOE Espainiako patronala zentralak, soldaten moderazioa, bidezko irazpena, “lan faktorea”-ren merkatzea eta pentsio eta babes sozialaren murrizketa eskatu dute jada. Enplegua amaitzeko edo erregulatzeko aurkeztu ari diren txostenak gero eta gehiago dira, zuzenean euren ateak ixten ari diren hainbat enpresa txikietaz aparte. Irazpenak eta lan-baldintzen narriadura saihesteko gertatzen ari diren erresistentzia-borrokak ohikoak dira. Oinarrizko errentak joka zezakeen papera erresistentzia kutxa moduan langileen borrokan euren lanpostuak mantentzearen, areagotuta ikusiko litzateke. Krisiak eraginda, baliteke orain atzerapen handia ematea izugarri kostata lortu diren hainbat erdiespen sozialetan. Langileen

eskuetan, oinarrizko errentak baliabide eraginkorra izan daiteke prozesu aurre egiteko, eta irudimen-idea bat lorpen hauen errefortzu eta birmoldatzerako, indibidualizazio, sistema fiskalarekiko integrazioa, progresibitatea, birbanatzea, estigmatizazioaren aurkako lehia eta babes unibertsalaren printzipioak gehituz.

Egungo krisiak agerian utzi du zer edo zerk benetan interesatzen duenean eta beharrezkoa estimatzen denean, dirutza publiko kopuru itzela xahutzen dela egoera jakin batetik ateratzeko, non aurkitzen garen finantza-espekulazioaren gehienezko errentagarritasunarengatik apustu egin zutenei esker. Mobilizatu beharreko baliabideen tamaina edota horren zailtasun administratibo eta politikoa ez dira nahiko arrazoiak oinarrizko errenta bezalako proposamen garrantzitsu eta serioa gaitzesteko.

Hauek dira erakunde sozialei, alderdi politikoei, sindikatuei, mugimendu sozialei eta herritarrei oro har proposamen hau, oinarrizko errenta alegia, aurkeztera bultzatzen gaituzten zenbait hausnarketa, seriooki hartuta izan dadin krisiak gizartearen zenbait sektoretan utzi ditzakeen ondorioak saihesteko modu bat bezala, kaltetuenak izateaz gain, ez baitute zerikusirik haren sorrerarekin.

Sortu berria da Espainiako Parlamentuan azpibatzerde bat oinarrizko errentaren komenentzia aztertzeko. Momentu egokia da, bada, proposamen sozial honen aukerak azaltzeko.

Literatura akademiko espezializatuan aspaldi eztabaidatzen ari da ideia hau seriotasun zientifiko osoz, eta alternatiba desberdin aurkezten finantzatzeko eta eduki politiko zehatz bat emateko. Zehaztasun akademiko eta zientifiko horri oinarrizko errentaren bidean pausoak emateko beharrezkoa den borondate politikoa eransteko momentua iritsi dela uste dugu.

Langileen artean prekaritatea eta ekonomikoki segurtasun eza ezker-eskuin zabaltzen ari dira, eta lehen segurtasun sozio-ekonomiko nabarmen bat zutengana ere heltzen ari da. Testuinguru honetan, oinarrizko errenta, zerga-sistema erreformaren bitartez sortutako sare material unibertsalki bermatua den neurrian, herritarren segurtasun materiala sendotu eta hobetzeko tresna bezala agertzen zaigu, behar-beharrezko baldintza herritartasuna gauzatzeko.

Traducción: Borja Barragué